

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ADMINISTRAZIO OROKORRAK ETA FORU ALDUNDIEK EMANDAKO DIRU-LAGUNTZEN ANALISIAREN TXOSTENARENA, 2007-2011

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrak eta foru aldundiek 2007-2011 aldian emandako diru-laguntzen analisiari buruzko txostena mamitu du Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak. Txostena Osoko kideen gehiengoak onetsi du.

Lanaren helburua EAEk eta FFAAek 2007-2011 aldian izandako diru-laguntza jardueraren laburpena aurkeztea da (diru-laguntzak eta laguntza publikoak), izaera informatzailea eta estatistikoa izango duena, inondik inora ere jarduera horren legezotasuna auzitan jarri gabe.

Txosten hau mamitzeko 2007tik 2011ra bitarteko ekitaldietako aurrekontuen likidazioetako “Transferentzia eta diru-laguntza arrunten” kapitulutik eta “Kapital transferentzia eta diru-laguntzen” kapitulutik egikaritutako gastu-datuak baliatu dira; baita, dagozkion ekitaldietako HKEEren fiskalizazio lanen agiri euskarrietatik eskuratutakoak ere.

Ez ditugu aztergai izan Erakunde Konpromisoetarako transferentziak, Eusko Jaurlaritzak, BBNN, HKEE, BGP eta abarren aurrekontuak finantzatzeko emandako ekarpenak eta horien EEAA, partzuergo, ZPEE, ZPEPP, SSPP eta FFSSei emandakoak ere. Ordea, diru-laguntza modura aztergai izango ditugu fundazio, partzuergo, sozietate eta abarrei emandako diru ekarpenak, zeinen aurrekontuak epe honetan ez dauden Administrazio diru-emailearen aurrekontuetan barne hartuak, zeinahi dela ere erakunde horien osaera.

Txostenean jaso ditugun magnitudeak egoki interpretatzeko beharrezkoa da gogoan hartzea zerbitzu bat bera molde ezberdinekin aurkez dezakeela erakunde bakoitzak, batean ekintza bera diruz lagunduz eta bestean zerbitzua erakundeak berak zuzenean emanez, “Langile gastuak” kapituluaren erregistratuz (aurrerantzean 1. kapituluak), edo zeharka obra edo zerbitzu kontratu baten bidez, “Ondasun eta zerbitzu arrunten erosketak” kapituluaren erregistratuz (aurrerantzean 2. kapituluak) eta honenbestez, Transferentzien eta diru-laguntza arrunt eta kapitalezkoen kapituluek bestelakoetan.

Txostena osatzen duten ataletan honako informazio hau ematen da:

- Diru-laguntza jarduerak urtero eta aztergai epearen batez bestean erakunde mailaren eta osotasunean berezko egikaritza gastuekiko egiten duen ehunekoa; azpimarratzekoa da erakundeen multzoan eta aztergai epean ehuneko honek % 26 egiten duela.
- Erakundeen arteko alderaketazko grafikoak osotara eta emakida moldearen arabera: zuzena, izenduna eta lehia bidezkoa
- Sailaren araberrako eta emakida moldearen araberrako diru-laguntzen xehapena erakunde bakoitzaren arabera; baita, diru-laguntza esanguratsuenen xehapena hartzaile motaren arabera ere.
- Diru-laguntza jarduera HKEEK zehaztutako 17 kontzeptutan multzokatzea, kontzeptuka berdindu eta erakundeen arteko alderaketa egin ahal izateko. Beste hainbat, per capita datuekin.
- Azkenik, 2 milioi euroren zenbatekoaz gaineratik aldi horretako diru-laguntza izendun eta zuzenen hartzaileen araberrako xehapen banakakoa eta metatua.